

PEDRO PUJANA AGIRREGABIRIA (1915-2001)

Bilbo, 2001-IV-26

Oleta: 1915-VI-28 - Begoña: 2001-II-4

Jaun-andreok: agur t'erdí.

Aramaioko semea izanik lan oso atsegingarria dot gaur hemen zuen aurrean Pedro Pujana nire herritarrari “omenezko hilberri txosten” hau eskaintzea. Poz handia emon deustanarren ez daukat neure kabuz barri handirik emoteko asmorik.

Berbalditxo honetarako barriak batzen nenbilela, Pedro adiskideak bialdutako txosten batekin, “Arabar baten euskal ibilpidea” deritxonarekin egin neban tril. Bertan bere bizitzako barri nagusiak eskaintzen ditu. Zer hobeagorik bada, bere berbak entzutea baino? Horixe eskainiko deusuet nire berbalditxo honetako lehen atalean, jarraian bere bizitzako daten eta lanen barri zehatzagoak jasoz. Honela dinosku Pedrok (arabarrak) bere bizitzaren barri emotean:

“Jainko onak honantxe nahi izanda —edo halanbeharrak, denetara hitz egiten da gure egunotan— nik ondotxo ezagutzen dodan arabar baten jatorrizko berbetea euskara izan zan. Arabar horrentzat euskera bere amaren bularretik harako hizkuntza izan zala dirausuet, labatik harako opilaren antzera.

Euskeraz izan ziran mundu honetan lehenengo biderrez egin ebazan berbak. Euskeraz egiten eben beti-beti euren artean etxean gurasoak eta seme-alabak. Euskeraz berba Jaungoikoagaz ere. Euskeraz bere buruagaz bizitzaldi guztian.

Euskera ikasi, luze eta zabal ikasi ere, txiki-txikitan, ume-umetan ikasi eban, beraz. Eta haren lehenengo maixua euskera ikasteko, beraren aita izan zala esan behar dautsuet. Berau izan zan euskera irakurten eta idazten lehenengoz ikusi eban gizona mundu honetan.

Izan zan, zorionez, azken mendearen —XIX garrenaren— erdi aldera liburu bat Euskalerriko —zein Iparralde zein Hegoaldeko— etxe eta familietan eten barik irakurria izan ei zana, lehen eta orain gehien-gehienik erabilia izan ei zan euskal libururik zabalduena, nik nunbaiten irakurri dodanez. Beronen izena hauxe: ITUN ZAR ETA BERRIKO KONDAIRA, Frantzisko Lardizabal, Zaldibiko abadeak gipuzkoeraz idatzirikoa.

Arabar haren aitak Lardizabal abade harexen liburua irakurri ohi eban sarri-sarri bere etxeko eskaratzean, inoiz ahots zoliz, bertan ziran etxeko guztiak entzun egien. Udagoien/negualdian, batez ere, egiten eban irakurtaldia, eguna laburra eta gaua luzea izaten dan aldikada horretan. Oraindiño ikusten dagoala bere aita —dirudio arabarrari— Lardizabalen liburu lodikotea, narruzko azal doterez apaindua, eskuetan harturik eta zabalduzik, sutondoko sugarraren argitara —artearen ez zan etxe haretan ez herrian

argi-indarrrik— irakurten eta irakurten, orain ixil-ixilik beretzako, geroxeago ozenkiro eskaratzean ziran familikoentzako.

Bazan etxe haretan mutiko txiki-txiki bat, familiako zeiena, aitari begira-begira jarririk, zirkinik egin barik eta belarriak ondotoxo edegirik, adi-adi, beste hizkuntza arrotzetan baino lehenago bere jatorrizko berbakuntza ederrean liburuak ekazan kontaktizunak entzuten zituana.

Orduantxe erne eta garatu ekion (ekion: adizki zaharra: jakon) mutiko hari bere kolko barrenean euskerarenganako atxikimendua, geroago eta itsatsiago egingo jakona, “etxean zer ikusi, haxe ikasi” esaerak dinoanez.

Arabar harek bere aita idazten ere ikusi ebala, esango dogu. Bein baino gehiagotan ikusi ere. Ixeko bi eukazan etxetik eta herritik urrun xamar, eta aita noizik behin gutun/idazkitxoren bat egiten eutsen etxeko guztien izenean bertako barri emonez. Gutunaren buruan beti-beti eta hutsik egin barik hauxe idazten eban hizki/letra haunditan: GEURE EUSKERA EDERRIEN, eta gero dan-dana euskeraz idatzi.

Arabar haren aita ez zan kultur alorrean jakite zabaleko gizona. Ez eban inongo ikastetxetan ikastaldi berezirik burutu. Halan eta guzti ere, lehen mailako ikaskizunetan nahiko ondo jantzirik ikusten zan, euskeraren barrutian berariaz. Hau zelan uler daiteken? Lardizabal giputz idazlearen frutu umotua izan zeitekean. Zerbat aldiz irakurri eban ITUN ZAR ETA BERRIKO KONDAIRA eritxan haren liburua? Batek badaki!!

Irakurriaren irakurriaz eta atzamarrak liburuaren orrietan erabiliaren erabiliaz orriok orituta eta nahiko zikinduta agertzen ziran. Hainbat atal buruz ere baekizan eta...

Euskalkiak oztopo dirala euskera erabilteko eta ulertzeko? Ez horrenbeste. Hemen daukagu ezezkoaren agerbide bat.

Herriko bizigiroa euskeraren aldekoa eta guztiz egokia zan elizate/auzune haretan. Halakoren baten herbestetik etorten ziran guardia zibilak izan ezik, ez eban inork han gatzelaniarik egiten. Herriko eskolan, halan ere, ez zan berbatxo bat ere euskeraz ikasten, ez entzuten. Gaztelania huts-hutsez eskolatu ginduezan. Eta hori, umekondo saldoaren lehenengo urteetako maixua euskalduna izan genduala, Axpe-Arrazolako semez. Eskolorduetatik kanpora euskeraz egiten euskun berba, bai berak eta bai beraren familikoak ere. Eskolorduan, barriz, beti erderaz eta erdera hutsez. Eskerrak kristau-ikasbidea euskeraz ikasi gendualako. Arabar honek bere bizitzaldian irakurri eban lehen liburua euskeraz kristinau-ikasbidea izan zan. Elizan ere berbaldiak beti euskeraz. Abestiak euskeraz eta latinez, orduan ohiturea zan legez.

Adinean haundiago eta euskeraren eremuan ikastunago egiten zan gure arabarra. Gasteizko eliz Ikastetxe Nagusi batera joateko erea izan eban, eta han izen eta ospe haundiko maixu/irakasle bategaz tril egiteko egokiera, zorionez: Manuel Lekuona jaunagaz. Beronek situagotu eta biztuagotu eutsan etxetik ekarren euskerarenganako grina, etorkizunear egundo gehiago ez urrituko, ez epelduko ez ekiona (ekiona: adizki zaharra=jakona). Ez berari soilik, ikaskide zituan hainbeste gazteri ere ez. Hori ez eban lortzen gure irakasleak hitzaldi sutsu —gartsu— luzeak gazteei eginez, ez; goxo-goxo, guztiz goxo eta bigun, lan egiten eta idazten bultz eginez baino.

Maixu oso atsegina izan genduan oiartzuarra, eta euskal esparruan jakitun-jakituna. Haregaz egiten genduan ikastaldia berehalaxe joaten ekigun (ekigun: adizki zaharra=jakun), labur-laburra bailitzan.

Handik laster zorigaiztoko gerrate zital/galgarria etorri jakun uste barik, eta horra gure asmo guztiak eta ames loratsuak gorengo hodei moltzo baltzen artean betiko galdau. Negargarria! Ez-aldiak eta izozteak jo eban gero erрукirik bagarik gure euskal baratz zimela!

Aítatu dodan aurreko aldi hau, halan ere, ongarria izan zan euskerarentzat. On-aldi eta biztu-aldi harek luzaroan iraun izan baleu, zeinen mesedegarria izan zeitekean gure berbakuntza zahar-zahar honentzat, baita Ikastetxe Nagusi harentzako ere, euskerari gagokiozala. Gogora ekarri, agergarriz, 1936garreneko Olerki-Eguna, gerrate aurre-aurretxoan Lekeition egin zana, Ikastetxe haretako hiru lagun, Manuel Lekuona jaun irakaslea, Iñazio Otamendi eta Anjel Sukia ikasleak bertan sarituak izan ziran eta.

Mendian gorantz doiana, gora eta gora egin ezker, halakoren baten mendiaren gailur/erpinera heldu egiten da. Gure arabarraren euskeraren ikastaldiari ere, "gailurra" deritxakén hiru urteetako gaina etorri jakon, Oñako (Burgos) Jesulagunen Ikastetxe Nagusian igaro zituan aurtetan.

Oñara joan aurretik, Gipuzkoako herri nahiko jendetsu baten bizi zan, euskera sustraiz ikasteko "egarri" ase-ezina eukala. Herri haretan, baina, ez eban astirik, ez ezetariko bitarterik, ez libururik helburu hori egia bihurtu zeiten. Oñara joandakoan, ostera, horra biok —astia eta liburuak— uste barik aurkitu.

Ikastetxe Nagusi haretan teologiako ikasle nagusien artean bazan talde bat —hamar/hamabi ikasleez osotua— euskera apur bat sakontxo ikasi nahi ebana, eta talde ha arabarrarengana joan zan, euskal aditza azaldu/argitu egiola eskatuz. Gipuzkoerazko aditza errotik aztertu eta ikasi gura eben, danak giputzak ziran eta.

Josulagunen Ikastetxeko liburutegi aberats/oparotsuan euskeraren barrutian trebetu ahal izateko liburu egoki-egokiak aurkitu ebazan arabarrak, esate baterako, Arturo Campionen *Gramática bascongada de los cuatro dialectos literarios* izeneko liburu mardula, R. M^a de Azkueren *Morfología vasca*, hiru hizkuntzatakó hiztegi lodia, Luis de Eleizalderen *Conjugación vasca sintética*, Seber Altuberén *Erderismos* eta *Observaciones al tratado de Morfología Vasca*, eta abar, eta abar.

Haxe bai izan zala poza eta gozamena gure arabarrarentzat!! Orduantxe ase ahal izan eban aspaldi-aspaldidanik ekarren gurari bizia, euskal baratzean buruz aurre sarzteko! Nun eta Burgos-en! Holakorik!

Sei hilabeteán, egun bakotxeko batez beste hamar ordu, beste zereginik barik euskal aditza aztertzen lan-da-lan egin eban arabarrak.

Hurrengo urte bitan jardun eban gipuzkoar talde hari euskera irakasten, aditza eta beste.

Ondorenez, hauxe esan behar: Oñako Josulagunen Ikastetxe Nagusi haretantxe lortu ebala arabar euskaltzale ikastunak negurri medar baten euskerari buruzko zerbait jakite, zorionez.

Esan ere, horrexegaitik esan dot, gure hizkuntzaran ikastaróa dala eta, Oñako ego-taldia mendi garai baten "gailurra" irudiko izan zala arabarrarentzako.

Oñako hiru urteetako ikaste/irakaste aldi harek ondoren mamintsuak ekarri zituan geroko urteetan..

Geroago egindako lanak —nabariak izan ez arren— ezin ondu ahal izango eban Oñan josulagunen artean egindako hobekuntza izan ez balitz.

* * *

Zerbait idazten hasi, askoz lehenago hasi zan. Haren euskerazko lehen idazlanak —askorik ez— gerrate aldikoak ziran. Elgeta/Intxorta gudalekutik, 1937 garren urtean, Bilboko *Euzkadi* egunkarian argitarara emonak.

1958-1967 urte bitartean Donostiako *Zeruko Argia* eritxan aldizkarian hainbat aldiz idatzi eban, geroagoko urteetan *Agur*, *Karmel*, *Zer*, *Euskerazaintza* aldizkarietan, batez ere, idazten jarraitzeko.

1970 garren urtean, Bizkaierazko aditza zala eta, liburu bat kaleratu eban, bigarren argitaraldia ere lortu ebalarik. Liburu honetantxe dator euskal aditz osoari iragan-gaitz zein iragankor, laguntzaile naiz bakun/sintetiko -NOR-NORI-NOR irakaspidea lehenengo aldiz ezarria, hurrengo urteetan aditz-irakaskuntza osora zabalduko zana.

Irakaspide honen sortzaile eta guraso Aita Isidor Baztarrika, Estibalitzko beneditarra izan zan, *Aditza* izeneko bere liburuan, 1968 garren urtean, aditz osoari ezarri ez utsan arren.

Itzulpenak dirala eta, beste hainbat lan albora itxirik, arabar honek ondutako egin-tzarik garrantzizkoena Bizkaiko Foru Barria edo Barriztatua, hamaseigarren mendean, 1526 garren urtean idatzia, lehenengo aldiz euskerara/bizkaierara itzultzea izan zan, 1981 garren urtean kaleratu zana, JOSE ESTORNES LASA, erronkariar zalduna, lan-kide edo Foru-adierazle/interpretatzaile izan ebal. Gauza bitxia, gero, hau ere! Bizkaiko Forua izan, eta lehenengo bidar, nafar jakintsu bat argi-emoile izanik, arabar batek euskeratu izana!

1979 garren urtean Arabako Aldundiak argitaratu eban *Oletako euskal aditza* izenburuztat daroan liburua.

Hauxe da arabarrantzat gogozkoena eta bihotzkoena dauan idazte-frutua, Arabako gorengo musturrean, OLETAN, mendetan eta mendetan erabili izan dan aditzaren barri —zuka eta hika— emoten dau eta.

Aramaioko elizate edo auzo horretan erabili ohi dan hikako jokaera, izan ere, guztiz berezi-berezia da euskal aditzaren barrutian, beste inon entzuten ez dan langoa, Otxandio inguruan izan ezik, ez Aramaioko Ibarren bertan, ez Leintzen (Gatzaga, Eskoriatza, Aretxaabaleta, Arrasate), ez Bizkaian, ez Gipuzkoan... Nafarroako ez dakit zein tokitan antzeko adizkiak darabilezela dirausku Azkue haundiak.

Endrike Knörr jaun euskaltzainak bidea urraturik etorri zan liburua kalera, Alfontso Irigoien euskaltzain oraintsu zenduak zuzenketa batzuk eginda gero.

Hikako jokabidea bizi-bizirik dogu Aramaioko alde horretan, zukakoa beste bai gazteen eta adinkidekoen artean.

Arabako Oletan bizirik dan hikako jokabideari buruz lan bat agertu zan 1977 garren urtean, eta idazkun haretatik adizkera batzuk ekarri dodaz orriotara, beste leku batzuetako adizkerakaz bardinkaturik/konparaturik, irakaurleari argigarri izan dakiozan (*Lekuonatar Manuel jaunari omenezko idazki-bilduma*, III, Kardaberaz Bilduma-21, Tolosa, 1977, 295 orr.).”

Pedro Pujana arabarrak bere bizitzako ibilbideaz buruz esan deuskuna entzun ostean, ibilbide horretako gora-behera zehatzak daten arabera labur-labur eskaini gura deusuedaz, ikuspegi osoagoa izan dagizuen.

Pedro Pujana Agirregabiria, Aramaioko Oleta auzoan jaio zan 1915eko bagilaren 28an. 14 urte zituala joan zan Gasteizeko Eleiz Ikastetxe Nagusira. Han, Filosofia ikasten ebilela Jose Migel Barandiaranek eskatuta 2.000 bertso inguru jaso eutsozan bere aitari. Zoritzarrez galdu egin ziran paperak gerraldian. Esan deusku auzoan bertan ikasi ebalá euskaraz irakurten.

Filosofia ikasten ebilala gerrara joan behar izan eban. Gerraldian Martiartu bata-loiko kide izanik Elgetan, lehenengo, eta Barakaldo-Sestaoko fabrikak jagoten, geroago, jardun izan eban. Frankistak Bilbo hartu, eta Martiatu bataloia errendidu zanean hiru egun Arriaga antzokian euki eben. Gero hiru hilabete Logroñoko zezen-plazan. Han atxilotuen artean aukeraketa egin, eta katibuen lan-bataloira bialdu eben. Bertan jardun eban Aragoín eta Katalunian zehar Gironaraino, frenteko bideak eta lubanak egiten.

Gerra amaitutakoan, bataloiko buruak, seminariora itzultzeko asmoa eukala jakitean, beste barik etxera bialdu eban. Heldu eta aste gutxi barru barriro Gasteizko seminariora joan zan. 1944ko bagilaren 29an, 29 urte egiten zituan egunean egin eben abade Gasteizen. Handik hiru egun barru emon eban meza barria Muxika-Oletako Andra Maria parrokian.

Abade egin barri Jerez de la Frontera (Cadizen) joan zan Juan Jose Agirre bere lehengusua zan abade gaixotuaren ordezeko lanak egitera. Eta han ibili zan 1944. urtetik 1948. urtera bitartean, herririk herri misio-lanetan. Euskal Herrira etortzerakoan Eskoriatzara bialdu eben. Baina, Pedro ase-gatxa zan, eta jainkozaletasunak bultzaturik eta kristau-bizitza osoagoaren bila Josulagunen Lagundian sartu zan. Hiru urte Urduñan (nobiziatuan) egin ostean, Oñara bialdu eben filosofia eta teologia barriztatzera. Entzun dogun moduan han ekin eutson euskara sakontzeari. Bederatzi urte Josulagunen Lagundian egin ostean barriro eleizbarrutira itzuli zan. Handik aurrera eleizbarrutiaren zerbitzuan bizi izan zan: 9 urte Angiozarren, sei urte Morgan, 12 urte Arteagan; 1985ean hirurogeita hamar urterekin jubilatu, eta Begoñako abade-etxera etorri zan. Orduetik heriotza unerarte Begoñako basilikan izan dogu eten barik gogotsu eleizako lanetan laguntzen: arrosarioa euskaraz irratitik errezatu, euskal mezak eskaini, gaixoei bisitaldiak egin,... bihotz handiz eleiztarrei laguntzen, eta astiune guztiak euskarako idazte-lanetan erabilten. Eta, horrela, aurtengo otsailaren 4an hil jakun arte. Azken bi urteetan batez ere, nahiko makal ikusi izan dogu. Aldi horretan makalaldiak baino neke handiagoa emoten eutsoen ikusteko eukazan eragozpenak. Halan da bere, beti umoretsu eta laguntzeko gertu.

Euskarako idazlanak:

1. *Euskal Aditza bizkaieraz / Flexiones del verbo vizcaíno*. Bilbon, 1970. urtean.
2. *Aitortu zer dela eta?* Bilbo, 1972. Argitalpen hau D. Borobio delakoaren laguntzagaz argitaratu eban.
3. *Bateoa*. Bilbo, 1973. Liburuki hau be, D. Borobioren laguntzagaz argitaratu zenduan.

4. Eta 1978. urtean Mikel Zarate idazle-abade lezamarrari lagundu eutson Euskaltzaindiak Arantzazuko Biltzarraren 10. urteurrenean Bergaran antolaturiko Euskaltzaindiaren VIII. Batzarrerako "Euskara batua eta euskalkiak" deritzan txostena gertatzen.

5. *Oletako euskal aditza, hikako jokabidea*. Vitoria, 1977.

6. *Oletako euskal aditza / El verbo vasco de Oleta*, flexiones hika del valle de Leintz (*Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate*); *Del Valle de Anguiozar / Bergara, de Zeanuri y de la zona de Vitoria*. Vitoria, 1979. Diputación Foral de Alava. Consejo de Cultura.

7. *Bizkai'ko Forua* edo FORU BARRIAREN itzulpena, Pedrok euskaratu eta Jose Estornes Lasa jaunak 1981. urtean argitaratua.

8. Hainbat euskal aldizkaritan parte hartu izan dau bizitzan zehar: *Euzkadi* egunkarian (gera garaian); *Zeruko argia* aldizkarian 1958-1967 urteen artean; geroago *Agur*; *Euskerazaintza*, *Zer*, *Kardaberaz* eta *Karmel* aldizkarietan. Euskaltzaindirako egindako txosten pare bat *Euskera* agerkarian. Horrela, heriotzara arte. Hainbat lan dira hor-hemenka argitaratuta dituenak.

Pedro Pujanak bizkaiera erabili eban beti. Egoera larrian ikusten eban Bizkaiko euskalkia. Hori zala eta, bere lan gehienak Bizkaiko aldizkarietan agertu zituan. Baina, era berean Euskaltzaindiak baturako ortografia onartu eban iraupenerako ezinbestekotzat jotzen ebalako. Bide hori erabili eban bere bizitzako azken urteetan. Horrek, baina, zoritxarrez bera oso bihotz zabalekoa izan arren, ate batzuk ixtea eta lagun batzuen hoztasuna ekarri eutsozan. Azken urteetan irizpide zabala daukan gure *Karmel* aldizkarian argitaratu deusguz lanak.



Ezkerretik hasita:

Pedro Pujana Agirregabiria, Jose Ramon Uribe, Aramaio alkatea izana, Jean Haritschelhar euskaltzainburua eta Oletako abade izandako Jesus Mari Elejalde jaunekin batera.

Jasotako ohorezko ezagutzak:

Onartua izan da hainbatean Pedro Pujanak gure euskararen alde egindako lana. Horren adierazgarri ditugu bizitzan zehar eta bizitza ostean jaso dituen ezagutzak:

Euskaltzaindiak 1979an euskaltzain urgazle eta 1995ean ohorezko euskaltzain izendatu eban. Bizkaiko Foru Aldundiak omenaldia eskaini eutsen 1983an Foruak itzul-tzeagatik. Aramaioko Udalak 1998ko urriaren 14an "Seme kutun" izendatu eban. Bil-boko Liburu Azokan "Urrezko Luma" jaso eban orain dala urtebete.

Heriotzaren ostean bere gogoan izan dabe: Aramaioko Udalak Oletan eskainita-ko mezan; Morga eta Arteagoko udalek ere omenaldiak eskaini deutoez.

Pedroren nortasuna:

Amaitzeko (nik azken urteetan izan ditut hartuemon estuak beragaz batez bere) Pedroren ezaugarriren bat edo beste gogora ekarri gura deusuet. San Pedrok Aposto-luen eginetan Jesusen bizitzaren laburpena egiterakoan, "Galilean hasi eta Judean ze-har on egiten, gaixoak osatzen eta espiritu txarren menpekoak askatzen igaron e-bala" dinosku.

Pedro Pujanaren bizitzaren laburpena egitera jo ezker antzerako zerbait esan dai-kegu. Hainbeste maite eban maixuaren jarraitzaile zintzoa izan zala: Herria eta Jaun-goikoa maitatzen jakin e-bala. Herriaren alde jo eta ke ekin eutsen bizitza osoan zehar, eta, era berean, Jaungoikoarenganako maitasun neurribakoan bizi izan zan.

Niri beti iruditu jatan, azalekoak gora-behera, Anbotoko harkaitz gogorraren an-tzeko tantai sendo handi bat. Sustarrak lurrean sakon sartuta, haize eta edurrei gogor aurre egiten. Bizitza luze osoa euskarari eta eleizari eskainita, inoiz nekatu barik lan eta lan. Halan da guztiz bere, beti, pozik, umoretsu, adarra joteko gertu.

Eskaini bere, bizitza osoa zerbitzuan eskaini eban. Hortik, batez bere, beraren han-ditasuna. Txiki-txikitatik eta barru-barrutik bizi izan zituan, berak esan deuskun mo-duan, jainkozaletasuna eta euskararenganako eta gure Herriarenganako maitasuna. Ibi-li dan herri danetan jardun izan dau buru eta bihotz herritarren zerbitzuan. Han nahiz hemen, beti bere eginkizunak zintzo betetzen ikusi dabe herritarrek. Atsedean izan da-giala zoriontsu Jaungoiko Aitaren betiko erreinuan.

Patxi Uribarren Leturiaga